



ETB

ziklo aldaketa

Txoritxoa ekaitzaren erdian

Ekaitz perfektuaren erdian dago ETB: zuzendaritza aldatzeko prozesuan emurgildu da EAEko azken hauteskondeek EAJri agintea itzuli ostean; Alberto Surioaren zuzendaritzapean kate publikoak krisia bizi izan du, audientzien beherakada handi samarra tarteko; euskarak ETBn eduki behar duen lekuari buruzko eztabaida berriz agertu da 30. urteurrenaren karietara; Lurreko Telebista Digitalaren eta Interneten agerpenarekin telebista berrasmatzeko premia agerian geratu da baina –esan dugu ekaitz hau perfektua dela–, krisi ekonomikoak zintzurra estutu dio txoritxoari eta datozen urteetan nondik joko duen ikusteko dago.

Hainbat ertzetatik heldu diogu beraz, ETBk bizi duen inflexio-puntuari: kateko eduki zuzendari Pello Sarasolarekin hitz egin dugu; Ramon Zallo EHuko irakasleak ETBk aurrean dituen hiru erronka nagusiei buruzko analisia eskaini digu; Galeseko Aberystwyth Universityko Elin Haf Gruffydd Jones irakasleak ETBren ispilu izan daitekeen S4C galeserazko katearen ereduaren berri eman digu; Inazio Arregi Tokikomeko zuzendariak euskarazko telebista lokalek ETBrekin izan duten harremanari buruz idatzi du; eta Bingen Zupiria ETBko zuzendari ohiak EITBren ereduaz eztabaidatzeko hainbat puntu proposatu ditu.

Lerroot idazten ari garela ezagutu ditugu Administrazio Kontseiluko kideen izenak baina oraindik Euskal Telebistako zuzendari berria nor izango den ez dakigu, zurrumurruak zurrumurru.

■ **Elkarrizketa eta koordinazioa: Gorka Bereziartua**

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.358. zenbakiarekin banatua, 2013ko otsailaren 24an)

“ETB1ek aurrekontu handiagoa behar du ETB2k baino”

Pello Sarasola ETBko programazioaz arduratu zen 1995etik 2005era eta Espainiako Antena3 katean sei urtez lan egin ondoren, 2011. urtean itzuli zen ETBra. Euskal Telebistako zuzendari izateko kinieletan bere izena agertu da azken asteetan. Programazioaz, telebista ereduaz edo euskararen eta gaztelaniaren arteko orekaz hitz egin dugu, besteak beste.

GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



“Zertarako ETB, audientzia lortzeko? Ez. Helburu batzuk betetzeko: euskara eta euskal komunitatea egitea”.

Bi garai oso diferentetan arduratu zara ETBko programazioaz. Kanpoan izan zaren urteekin bat egin du ETBren krisiak. Zerk huts egin du tarte horretan?

Antena3n tokatu zitzaizkidan urte haiek izan dira telebistak bizi izan dituen urterik aldakorrenak. Iraultza gertatu zen, telebista digitalaren hasieraren iraultza. 1999an hamar telebista kate baino gutxiago ikusten ziren etxe normal batean, zazpi-zortzi edo. Eta kolpean, etxe guztietan pasaginen 40, 50, 60 kate jasotzera. Prozesu horretan telebista kate tradizional guztiek, bai pribatuek, bai publikoek, sufritu egin genuen, audientzien sakabanaketa geure gainera etorri zelako.

Ez zen jakin ETB telebista digitalaren arora garaiz egokitzen?

Prozesua hobekien ulertu zuten kateek audientzien sakabanaketa horri hobeto erantzun zioten. Adibidez, Antena3 prozesu horren protagonista izan zen. Katean pentsatu zuten audientziak sakabanatu egin behar zirela eta kate berriak sortu zituzten, beraien kate tradizionalari audientzia eurek kentzeko.

ETBk berriz, berandu eman du audientziak barreiatzeko urrats hori.

Prozesu hori hasten ari zenean, ETBren koordinazio eta zuzendaritzan aldaketa oso inportantea izan zen eta hori beti da oso zaila, sartzen den talde berriak bere ideiak martxan jartzeko denbora behar duelako. ETBri kosta egin zitzaion eszenario berriari erantzutea, batik bat gaztelaniaz egiten den telebistan. Euskarazko telebistak gutxiago sufritu zuen audientziaren sakabanatze hori, bi arrazoirengatik: audientzia baxuagoarekin hasi zelako eta batez ere, zuzendaritza berri horrek erabaki oso ona hartu zuelako nire ustez, ETB3 martxan jartzea, haur eta gazteei begira. Hartara, euskaraz telebista kate bakarra eduki beharrean gutxienez bi edukitzea lortu zen. ETB3ri esker euskarazko telebistak bere espazioari hobeto eutsi zion gaztelaniaz EITBk egiten zuenak baino.

“

Asko sinesten dut ETBko informatiboaren erredakzioaren lan egiteko modeloa. Bi hizkuntzak primeran kontrolatzen dituen erredakzio bat, denak batera lan egiten, gremio ugari nahasturik, bi produktuak, euskarazkoa eta erdarazkoa eginez eguneroko lanean”

Baina inpresio nahiko zabaldua da euskarazko kateek pisua galdu dutela EITBn erdarazkoen aldean.

Hori zenbakitan ez da hala, gaztelaniaz proportzionalki espazio gehiago galdu da.

Audientziei dagokienez bai, baina programazio ordutan, aurrekontuetan... Horietan ere bai?

Alde horretatik nahiko egonkor mantendu da argazki orokorrari kasu egiten badiozu. Egia da azken urte hauetan martxan jarri zela ETB2ko Egunon Euskadiren ordutegi esparru berria, lehen ez zegoena. Hortik aurrera, arratsaldea eta bazkalordua mantendu egin dira gutxi gorabehera zeuden bezala, salbuespen batekin: ETB1en egin zen ahalegin bat Arratsaldero saioarekin. Ez zuen funtzionatu. Ez zitzaion eutsi, behinik behin.

Dena dela, ETBn lan egin dugun profesionalok gure buruaren autokritika egin behar dugu argi eta garbi: desoreka dago eduki berrien eskaintzaren espazioan ETB1en eta ETB2ren artean. Hori orekatu egin behar da.

Esaten ari zara saio berriak orain arte ETB2n egin direla batez ere?

Ez, nik ez nuke horrela ikusiko. Bai ETB1en bai ETB2n *prime time* ordutegian, bietan egon daiteke apustu berdintsua; edo izatekotan, ETB1ekoen

alde. ETB1en genero garestiagoak daude, medio gehiago behar dutenak: fikzioa, kirola eta abar. Baina diferentzia nabarmenena da eguneko zehar ETB2k badaukala egunero eduki-egitura berria, lehenengo Teleberriaren aurretik sukaldariarekin hasi, eta arratsalde osoan bigarren Teleberrira arte. Eta alderantziz, ETB1ek egun osoko saio horietan ez dauka ETB2k daukan aberastasunik. Lehenengo Gaur Egunaren aurretik zer dago? Batik bat erreplikapenak. Eta arratsalde partean? Azpimarra hasi arte, erreplikapenak eta dokumentalak. Hor dago ETB1en hutsunea.

Nik askotan konparatzen dut futbolarekin: telebistan *prime timea* aurrelariak dira. Diru gehiago irabazten dute, golak sartzen dituzte eta audientzia handienak izaten dituzte biek...

Konparazio bitxia da.

Ba konparazio horretan informatiboak dira zelai erdia, parrillaren erdi-erdian daude kokatuta eta jokoa banatzen dutenak dira, oso-oso inportantea kate batek funtzionatzeko. Baina defentsa *daytime* deitzen den hori da, goizeko eta batez ere arratsaldeko programazioa. Ez dira telebista kontsumo altuena daukaten ordutegiak, baina ordu pila bat dira. Eta hor ez baldin badaukazu espazio bat, beti oso emaitza apalاک edukiko dituzu.

ETB1eko ordutegi hori indartzeko proiekturik badago?

Idea pila dauzkagu buruan edukien lan-taldean, baita gure buruarekin konpromisoa ere: nahiz eta diru-iturriak gehiago lehortu, ETB1en egunero-



Pello Sarasola EITBren 30. urteurreneko ekitaldi batean. Aurrera begira ETB1 indartu behar dela uste du Euskal Telebistako eduki zuzendariak.

ko saioen eskaintza zabaltzeak lehenetsua eduki behar du. Asmoa da gutxien-gutxienez lortzea lehenengo Gaur Egunaren eta bigarrenaren arteko espazio hori guztia eguneroko saio berriekin betetzea. Hori da nire ustez EITBk telebistarekiko daukan erronkarik inportanteena.

Nola banatzen dira EITBko telebisten diruak euskarazko eta erdarazko kateen artean?

Ba, %50ean gutxi gorabehera. Izan daiteke %5 gehiago bataren edo bestearen alde testuinguruaren arabera, baina erdibana egiten dela esan lite-

“

Gauden egoeran, barne-produkzioan dago benetako gakoa eta horretarako gutxiago gastatu beharko litzateke nazioarteko eskubideetan”

ke. Bakoitzak dauzkan baliabideak banatzen badi-tuzu ETBren lau kateen artean, gutxi gorabehera bost eurotik lau baino gehixeago ETB1en eta ETB2n gastatzen dira erdibana; eta bestea, euroa baino gutxiago, ETB3n eta ETB Sat-en. Azken horiek biak oso merkeak dira eta hala jarraitu behar dute izaten, zeren, nire ustez, diru-murrizketen soluzioa ez da kate gutxiago egitea, dirua kate orokor inportanteenetan jartzea baizik, gehixeago ETB1en, hori delako lehentasuna eduki behar duen kate generalista. ETB2 seguruenik gehiago lerratu behar da gaurkotasunerantz, informaziorantz. Beste kateak mantendu behar dira, kostu baxu-baxuarekin. Eta posible da.

Audientziak faktore inportantea dira programazio horiek erabakitzerakoan.

Audientzietan pentsatzen dugunean datuak ikusten ditugu denok eta ahalegina egin behar dugu pertsonak ikusteko. Telebista hau ordaintzen duten pertsonak. Audientziak esaten digu zenbat herritarrek erabiltzen duten gure zerbitzua. Hori telebista publiko batentzat giltzarria da.

**Baina morrontza ere izan daitezke datu horiek, ezta? Ez al dute programatzaila eduki deigarrieta-
ra bultzatzen, funtzio publikoaren kaltetan?**

Audientzia zerbitzu publiko baten kalitatearen adierazleetako bat da, baina zertarako dago zerbitzu publiko hori, audientzia lortzeko? Ez. Helburu batzuk betetzeko: euskara eta euskal komunitatea egitea. Noski, ez baldin baduzu helburu

horien iparra galtzen, audientzia-datuak helburu horietara bidean jarri behar dituzu, horregatik defendatzen ari naiz ETB1ek ETB2k baino aurrekontu handiagoa behar duela, audientzia nabarmen gutxiago edukiko duen arren hurrengo urteetan ere.

EITB Nahieran webgunearekin ETBko saio guztiak eskura jarri dira; artxibo guztia liberalizatzeko aukeraz ere hitz egin izan da. Zer iruditzen zaizu?

Hori izan behar da ETBren helburua: zerbitzu publiko garen neurrian gure bankua jendearen aukeran egotea edonon eta edonoiz. Baina esku-bideen kontua ere hor dago, zeren, produktu bat egiten dugunean, eskubide ugari daude. ETBrenak patrimonio amankomuna izan behar du, baina badaude eskubide pribatuak ere, eta guk ezin ditugu jarri doako autopista zabalean edozeinen aukeran. Hor dago muga, baina gure eskubideak publikoak izan behar dira guztiz.

“

Askotan esan dugu Gaur Egun dela Teleberriren anaia pobrea, baina emaitzak aztertuta, Gaur Egun da ETB1en kirola izan gabe hoberen funtzionatzen duen edukia”

ETBko zure bigarren aldian informatiboak luzatzeko erabakia hartu zenuen. Nolako emaitza izan du?

Jendeak ETBri gaurkotasuna eskatzen dio eta horren ardatza informatiboak dira. Ni etorri nintzenez albisteek iraupen klasikoa zeukaten: 45 minutu informazio orokorra, kirola eta egural-

diarentzat. Momentu honetan erredakzioa 75 minutu egiten ari da eta beraiek antolatu dute beren burua hori lortzeko, ez da baliabide askoz gehiago erabiliz lortu.

Asko sinesten dut ETBko informatiboen erredakzioaren lan egiteko modeloan. Bi hizkuntzak primeran kontrolatzen dituen erredakzio bat, denak batera lan egiten, gremio ugari nahasturik, bi produktuak, euskarazkoa eta erdarazkoa eginez eguneroko lanean. Hori da ondo funtzionatzen ari den modeloa. Askotan esan dugu Gaur Egun dela Teleberriren anaia pobrea, baina emaitzak aztertuta, Gaur Egun da ETB1en kirola izan gabe hoberen funtzionatzen duen edukia. Nire ustez hori da lan egiteko eredua, ez bakarrik informatiboetarako, baita programetarako ere, nolabait ETB antolatzeko, batik bat datorkigun egoeran.

Zeintzuk izango dira datozen urteetako gakoak?

Gauden egoeran, barne-produkzioan dago benetakoa gako eta horretarako gutxiago gastatu beharko litzateke nazioarteko eskubideetan.

Championseko partiduak ez eskaintzeaz ari zara?

Zinemaz eta kirolaz ari naiz. Horien nazioarteko eskubideetan gutxiago gastatu behar da eta gehiago barne-produkzioan. EITBk diru-laguntza bidez 100 euro jasotzen baldin baditu, 100 euro horiek baino gehiago inbertitu ditzake herri honetan, diru-laguntza bidez jasotakoei publikitatearekin jasotakoaren zati bat gehitzen zaiolako. Eta horiek %100 hemen geratzeko barne-produkzioa da aukera. Gainera, jendeak bere etxean 50 kate ditu eta ETBri barne-produkzioko edukiak eskatzen dizkio. Lehen nazioarteko telesailak eta pelikulek bestelako zentzua zeukaten, eskaintza osoagoa egiteko. Baina gaur egun ETBk daukan espazioa, zoragarria, nortasuna ematen diona, hemengo edukiak indartzea da. Eta hemengo edukiak indartuz enplegua ere indartuko genuke.



ETBren proiektuaren definizioa politikoa izan behar da eta definizio hori adostuta dagoenean, horren garapenak profesionala behar du izan”

LARRUN honetan Ramon Zalok proposatzen du ETBko aginte-organismoak hautatzeko modua aldatu beharko litzatekeela, soslai profesionalagoen mesedetan.

Telebista publikoa izanik, nahi eta nahi ez, guztion artean hautatuak direnen esku dago telebista honen publikotasuna zaintzea. Politikarien esku, alegia. Horren ondoren, eguneroko lana profesionalen eskuetan utzi behar da konfiantza guztiarekin; eta epe luzerako bidea utzi behar zaie profesionalari. Telebistan ezin da lau urtean behin bidea eten, proiektuek beren denbora behar dute. Beraz, proiektuaren definizioa politikoa izan behar da eta definizio hori adostuta dagoenean, horren garapenak profesionala behar du izan.

EITBn zuzendaritza aldaketa gertatzen ari da eta hainbat lekutan zure izena agertu da telebistako zuzendari berri gisa. Zer duzu esateko?

Momentu honetan oso gustura nago eduki arduradun eta esango balidate ea interesatzen zaidan honetan jarraitzea, erantzuna baiezkoa izango zen zuzenean. Nire ustez, nire ahalmenek hor eman dezakete fruitua beste tokietan baino gehiago.

Beraz zuzendari kargua eskainiz gero ezetz esango zenuke?

Ez dut hori esan, esan dut oso gustura nagoela nagoen tokian. ■



DEIA



Ramon Zallo

EHUko irakaslea

ETBren hiru erronkak

Gizartea desintegratzeko arriskuaren aurrean, edo egunerokoan loturarik ez duen mundu birtualaren aurrean, Estaturik gabeko nazioek behar dute nahikotasuneko sistema komunikatibo bat, eztabaidagaiak ezartzeko aukera emango diena, norabide kultural, sozial eta politiko amankomunak sortzeko eta haien garapenari laguntzeko.

Hainbat faktore daude gertuko telebista publikoarentzat mapa arriskutsua marrazten dutenak.

Aurrena, digitalizazioa ezartzen joan den moduak bestelako komunikazio forma horizontalen konpetentzia ekarri du eta telebistaren kontsumo autogestionaturantz bideratzea (TBa-ordena-gailua-sakelako telefonoa-Internet), telebista kate bakoitzaren fideltasuna eta kuotak gutxitzen dituen. Bigarrenik, Estatuak ikus-entzunezko sistema zentralizatu, pribatu, gehiegizko, zatitu eta duopoliozkoaren alde egindako apustu politikoa ezin txarragoa izan da. Hirugarrenik, krisi ekonomikoak publizitatearen merkatuari eta aurrekontu publiko-
ei eragin die. Eta azkenik, 2008an ETBren audientzia %20koa izatetik 2012ko uztailean %12koa izatera pasa zen, eta hori Alberto Surioren akats estrategikoetatik ere eratorri da –PSE eta PPren akordioak sostengatu du eta irрати-telebistetara eraman–, gehiengoaren sentsibilitateetatik urrunduta.

EITB berriz ere euskal komunikazioaren erdigunean koka dadin hiru erronkari egin behar die aurre:

1.- Demokratizazioa eta egokitzapen instituzionala. EITBren Legea aldatzea ekarriko luke. Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza Oro-

korra hautatzeko bestelako eredu eta forma beharrezkoa da. Era berean, beste lege batek sortu beharko luke Ikus-entzunezko Komunikazioaren Euskal Kontseilua, pluraltasuna eta ikus-entzunezko sistema osoaren betebeharrak ziurtatzeko.

Administrazio Kontseiluak ez luke soslai politikoa eduki beharko, profesionala baizik; eta ez litzateke legegintzaldi bakoitzera lotuta egon beharko. Legebiltzarrak hautatu beharko luke, *primus inter pares* presidentziarekin zeina, gainera, zuzendari orokorra izango litzatekeen. Hori ez litzateke pertsona bakarreko organoa izango berez, eta Kontseiluaren gehiengoei lotuta egongo litzateke, baina kalitatezko botoa edukiko luke. Biak hautatuko lituzke parlamentuak –nire ustez, 2/3ko gehiengoarekin, bigarren txandan 3/5 eta paralisia luzatuko balitz, gehiengo absolutuz–.

Gainera, beharrezkoa da Programazioaren Aholku Batzordea martxan jartzea, gizarte zibilaren ordezkari gisa. Koadroa osatuko lukete Informatiboaren Kontseilu Profesionalak (eta Erredakzioaren Estatutuak) eta sarbide aktibo eta pasiborako eskubidearen ezarpenak, gizarteari, gutxiengoei eta kolektibo-
ei ziurtatzeko zuzenean

informatu dezaketela eta komunikazio ona eskura izango dutela.

2.- Zerbitzu Publikoaren misioen birdefinizioa eta programazio ereduena, erabiltzaileekin harremana desberdina izan behar delako dagoeneko.

Korporazio multimedia gisa definitzea izango litzateke. EITBko Zerbitzu Publikoaren ezaugarri zentraleri (sarbide orokorra, gehiengoentzako programazio-eskaintza eta gutxiengoei arreta, hizkuntzaren normalizazioa, kalitatea, informazioa, neutraltasuna, identitatea, kudeaketa demokratikoa, independentzia bermatuko dion finantzazioa, ekoizpen propioa eta hurbileko ikus-entzunezko industria azpimarratzea) misio gehiago ere gehitu beharko litzazkieke: Euskal Herriko esparru kultural eta komunikatibo propioa artikulatzea; memoria kulturala, berrikuntza, formatuen esperimentazioa, sormena eta euskarri anitzeko apustua; agenda propioa izango duen informazioan erreferentzia izatea; diferentziazioa identifikazioarekin; hurbiltasun emozionala; konpetentzia zerbitzu interaktiboetan eta plataforma ugaritan presentzia; komunitate plural eta anitzaren egituratzea; esparru publikoaren eraikuntza...

Programazioan nabarmendu behar da informazioaren garrantzia, dibulgazio- eta kultur-saioena, baina baita kalitatezko eta audientzia altuko programazioa, ahal dela ekoizpen propioan oinarrituta, izan talde barrukoa edo kanpukoa.

EITBren zerbitzu publikoko funtzioarekin lotuta, bere zentzua edukiko luke Albisteen Euskal Agentzia batek ere, hizkuntza ugaritan EITBren zerbitzuen luzapen multimedia izango litzatekeena.

3.- Kateen sistema eta dauzkan funtzioak berrikusi euskarazko programazioaren mesedetan.

Joan den legegintzaldian ETB1en rol sozialak beharrez jarraitu du. Audientziak ez du bat egiten errealitate soziolinguistikorekin. Betelana egiten duten programa gehiegi daude, baita kirola (pilota)

eta elkarrizketa eta erreportaje “etniko” errepikakorrak ere. Iritzi publikoaren kudeaketa funtzioari kontra eginez, euskarazko albistegiaren ordu kopurua gaztelaniazko kateen herena da. Gaur egun euskaldunek ez dute ETB1 ikusten. Bigarren mailako katea da, kate lokal baten antzekoa, gazteentzat eta jende kultu alfabetatuarentzat egokitu gabea. ETB2k espazioa fagoztatzen dio. Begi-bistakoa da kateen arteko espezializazio eredu desberdindua hautu txarra dela: ETB1 euskalduntzeko eta ETB2 sozializatorako, integrazioarako eta iritzi publikorako.

Nola eman jauzi bat ETB1en? Lehentasuna emanez, TB orokorraren bokaziotik, euskaldunen eremu ugaritara zuzenduz. Horretarako programazioa eta finantzazioa hobetu beharko lirateke; ekoizpena zabaldu eta bikoizketa bikoiztu.

Eta ETB2ko hizkuntzarekin malgutasun handiagoa balego, pixkanaka saio elebidun eta azpidatziak sartuz, eta euskal kulturari, zentzu zabalean, arreta handiagoa eskainiz? Baina ETB1ek ETB2ren azpian egon behar ez duen bezala, ez da egokia ETB2ren rola desegitea kate federatzaile gisa.

EITB.com-ek lehentasuna eduki behar du Interneteko kanal propio gisa, gazteekin konektatzeko eta nahierako edukiak euskarri ugaritan eskaintzeko. ETB3 mantendu behar da ahal den neurrian, haur/gazte programazioarekin jarraituz. Hori egin ezean, haur eta gazteen audientzia besteren kate tematikoei emango genieke. Bestalde, ETB4ren proiektuak itxaron dezake. Eta nazioarteko kateak beharrezkoak dira, eta agian egungo kostuak estutzeko komeni da OTT bidez. Azkenik, zentzuzkoa dirudi ikustea badaudela telebista lokalak euskaraz eta elebitan eta, berez, zerbitzu publiko edo soziala betetzen dutela, eta EITBk eduki beharko litzuzkeela pribilegiozko harremanak eta babesa.

Laburbilduz, demokrazian, kalitatean eta zerbitzuan jauzi baten aldeko apustua egin beharko litzateke euskal irrati-telebistan. ■





**Elin Haf
Gruffydd Jones**

Aberystwyth Universityko
irakaslea

S4C, ETBren ispilu galestarra

S4C galeserazko telebista kateak 2012ko azaroaren 2an ospatu zituen 30 urte antenan, ETBk baino aste batzuk lehenago.

Urtebetetzea aldi berean izate hori oso egokia da bi herrialdeek antzekotasun demografiko ugari ere badituztelako: biek daukate 3 milioi inguruko populazioa, 20.000 kilometro koadroko lurraldean bizitzen eta herritarren %20-30ek hitz egiten dute herrialdeko berezko hizkuntza, zeina oso diferentea den linguistikoki estatuetako hizkuntza nagusietatik. Galesera eta euskara aldi berean dira baserriko eta hiriko, zahar eta gazte, tradizional eta abangoardiako, normalizatu eta baztertuak gaur egungo bizimoduan. Telebistak Galesen eta Euskal Herrian erronka bat dauka, audientziaren espektro zabal horrekin komunikatzea hizkuntza minorizatua erabiliz.

Galeserazko ohiko emisioak 1960ko hamarkadan hasi ziren berez, BBCk eta HTV kate komertzialak ekoiztu eta emititu zituen saio sorta batekin. Beraz, S4Ck hasieratik zeukan bi hamarkadako telebistaren herentzia, esperientzia zeukaten profesional multzo bat eta ondo ezarritako generoak hizkuntzarako albistegietan, gaurkotasuneko saioetan, kiroltan, haurrentzako programetan, komedian, telebistako fikzioan eta katearen *Pobol y Cwm* telenobelan. Hala ere, telebistako ekoizpenean martxa aldaketa egiteko asmoa zeukan kate berri bat sortzeak –lanaukeren eztanda sormen-langileentzat eta teknika-rirentzat–, eta telebistako ekoizpen enpresak

herrialdearen gune ugarian kokatzeak, ez hiriburu bakarrik, areagotu egin zuen hazkunde ekonomikoaren eta galeseraren hizkuntza-industriaren arteko lotura.

Gainera, S4C bera mugarri esanguratsua izan zen Galesko historia politikoan. Katea egoera dramatikoan jaio zen. Milaka lagunek parte hartu zuten indarkeriarik gabeko ekintza zuzenean, hamarkada bat baino gehiagoz kanpaina egin zuten telebista katea ezar zedin. Hainbat Batzorde Parlamentario jarri ziren abian frogak hartzeko. Azkenik, Erresuma Batuko alderdi politiko guztiek babestu zuten galesera hutsezko telebista emandegiaren sorrera, baina 1979ko hauteskunde orokorrak irabazi ondoren Erresuma Batuko alderdi kontserbadoreak iritziz aldatu zuen, bere hauteskunde programari uko eginez. Plaid Cymru-ko (Galesko Alderdi Nazionalista) lider Gwynfor Evansen erantzun zuen hil arteko barua egingo zuela Gobernu kontserbadoreak bere konpromisoa bete arte. Akordioa lortu zen Gwynfor Evansen barua hasi baino lehen, eta S4Ck bere lekua hartu zuen galestarren garaipen mitologian. Telebista bihurtu zen kontsola-mendu-saria autonomia politikoaren erreferendumak huts egin ondoren, Galesko hautesleek baztertu egin baitzuen 1979an. Galesko identitate politikoa gobernu autonomorako prest ez egon

arren, galeseraren aldeko mugimenduko parte batzuek arindua hartu zuten estatu britainiarrak kontzesio kulturalak egiteko gizarte-mugimendua-
ren kanpainak izan zuen arrakastarekin.

Bidezkoa da esatea emititzen ari den hiru hamarkadetan S4Ck inpaktua eragin duela Galesko eguneroko bizimodu nazionalean. Haren presentziak lagundu du Galesko bizimodu politikoan, kiroletan eta kulturean, zuzenean parte hartuz lehenago “txikiagi”, “marginalagi” edo “galestarregi” ziren gertakariak programetan antenaratzen. Galesko jaialdi kulturalak eskaintzen ditu S4Ck, baita bertako futbol liga eta politika ere. Hasieratik, galeserazko albistegiak barneratu zuten nazioarteko gertakarien ikuspegi galestarra, eta S4Ck ekarri ditu Espainiako Ligako eta Errege Kopako jokaldirik onenak galeseraz kontatuta 1980ko hamarkadaren hasieratik. Haurrentzako programak, fikzioa eta benetako gertakarietan oinarritutako telesailak ekoiztu ditu kateak mundu osoko kate eta enpresa ugariarekin elkarlanean. Lorpen famatuena Oscar sarietarako atzerriko film onenaren bi izendapen dira, *Hedd Wyn* 1993an eta *Solomon a Gaenor* 1999an –bieten Espainiako *Belle Epoque* eta *Todo sobre mi madre* filmek irabazi zieten–.

Noski, izan dira puntu baxuak ere. Kate guztietan bezala, programa batzuek harrera pobrea izan dute (lehiaketak eta komediak datozkit burura), baina ezin da ukatu galeserazko telebista kate bakarra izateak eta hizkuntzaren normalizazioaren paisaia zabalagoaren parte izateak zailtasun bat gehitzen diola bere misioari. Batzuetan bere *raison d'être* –programak galeseraz emititzea– ezbaian jarri dute politikariek. Horrelakoek, berez, oroitazten dute hizkuntzaren normalizazioa oraindik proiektu politikoa dela.

S4C kritikatu dute ezkertiarrek ikuspuntuetan kontserbadoregia izategatik, programazio britainiar edo ingelesa emulatzeetatik eta bereziki gazteen kultura baztertzetatik. S4Ck baino baliabide handiagoak dituzten emandegi askoren zailtasun handiena gazteen audientzia da. S4Cren erantzun-

nak, noizbehinka gazteentzako fikzioa, zenbait pop musika saio eta gazteen eguneroko aferei buruzko programa bat egiteak, neurri batean erantzuten dio horri, baina ez erabat. Interneten daukan estrategiak ez du modu erabakigarrian lortu populazioaren zati hori harrapatzea.

Telebista geroz eta gehiago dago mundu osoan testatutako formulen menpe eta Galesko telebista ez da salbuespena. Hala ere, haurrentzako animazioaz aparte, Galesko telebistako fikzio-saioek gutxitan kopiatu dute beste hizkuntzetatik, besterik gabe ingelesezko programak kopiatzea (Erresuma Batutik edo AEBetatik) ez zelako inoiz aukera sinesgarria galeseraz eta ingelesez dakiten ikus-entzule elebidunentzat. Galeserazko telebista etxeko produkzioan oinarrituta dago batez ere. Berez, hazten ari da bertakotasunaren zentzua, lokaltasuna, audientziarekin gertuagoko harremanean konektatzearen sentsazioa, telebista nazional handiekin alderatuz gero.

Gertutasun hori hizkuntzaren erabileran ere islatzen da. Erresuma Batuko ingelesarekin alderatuta, dialektoen erabilera handiagoa dago Galesko telebistan. S4Ck galeseraz nola erabiltzen duen kritikatu izan dute zuzenedia edo formalgia izategatik, baita arduragabezia edo argot-tankerakoa izategatik. Linguistikoki, dialektoen arteko elkar ulertzea hobetzen lagundu du, baita neologismoen sorkuntzan eta zabalkundearen eta heldu izanda ikasten ari direnen errekonozimendua hobetzen ere.

Joan diren hiru urteak izan dira gorabeheratsuenak S4Cren 30 urteko historian. Prentsako iritzi negatiboen, goi-mailako exekutibo eta presidentearen dimisioen eta Erresuma Batuko koalizio gobernua gastuen aurreikuspenetan emandako kolpe finantzario gogorraren aurrean, badirudi ziaboga egin duela. Aurrekontuan %36ko murrizketarekin, ikusleekin berriz konektatu nahian ari da, antenan eta sarean, bere izen ona berreraikitze eta bere burua kokatzeko Galesko jendearen eguneroko bizitzaren bihotzean. ■



DANI BLANCO



Inazio Arregi

Tokikomeko zuzendaria

Tokiko euskarazko telebistekin elkarlana

ETB eta tokiko telebisten arteko harremanak ez dira atzo goizeko kontua. Hiru ekinaldi aipatuko ditut.

Arrasate Telebistako ordezkariak ETBko arduradunekin lankidetzat proposamen bat hitzartzeko asmotan egindakoa lehena. Orduko ETBko arduradunek tokiko telebistak lehiakitzat zituzten lankidetzat baino.

Duela bospasei urte, ETBko arduradunekin bilatzeko aukera izan genuen berriro, eta jarrera desberdina sumatu genuen. Lankidetzat bide egonkor bat urratzeko aukera ikusi genuen eta lankidetzat eremua marraztu ere bai. Tokiko telebistak ETBren tokiko berrietako irudien lanketaz ardurako ziren ETBk behar zuenean, eta telebista publikoak trukean irudiak, albistek, eta ETBren jabego intelektualeko programazioa eskainiko zien tokiko telebistei. Jakina, edukien joan-etorrien balorazio ekonomiko bat eta konpentsazioak ekarriko zituen norabide batean nahiz bestean. Arazo teknikoak – bereziki plataforma desberdinak edukitzetik sortutakoak – eragozpen handia izan ziren ideia martxan jartzeko eta harremanak ez zuen ondorioz sortu.

Orduan eta gaur, lankidetzat ez instituzional bat izan dugu, eta ETBk edukiren bat eskatu izan dugunean arazo barik eskaini diegu. Kontra, bere irudiak ere jaso izan ditugu guk behar izan dugunean. Ez da sarri gertatzen baina harreman naturala da.

Azkeneko lau urteotan aurretik izandako harremanak hoztu dira. Bilerak izan genuen arduradunekin arazo teknikoak gaindituta egon zitezke-

la pentsatuta, baina ez zuten proposamena balioetsi aurrekoek bezala.

Gaur, zuzendaritza berri bat aukeratzearekin batera, baikortasunerako lehiaketa bat zabaltzen dela esango nuke. Agian egoera ekonomikoak bultzatuta, baina garbi daukat euskarazko mundu honetan ari garen eragile publiko nahiz pribatuek elkarrekin jardun beharra izango dugula arlo askotan. Ez dagokigu guri ETBren etorkizuna diseinatzea. Horretarako daude Legebiltzarra, eta Legebiltzarra izendatutako arduradun eta profesionalak. Guk, gure iritziz ETBk gurekiko harremanetan eta euskaldunen ikuspegitik jokatu beharko lukeen rola azalduko dugu hiru puntutan.

1.- Komunitate desberdinetako euskaldunei informazioa, aisia eta euskal kulturarekiko sentiberatasuna hel araztea euskara lehenetsiz, gaztelera eta frantsesaren aurretik.

2.- Publiko-pribatu dikotomia gaindituz lankidetzat egonkor baterako oinarriak sendotzea euskarazko tokiko telebistekin, lehiakide baino errealitate bakar baten atal osagarriak garelako onartuaz.

3.- Euskal Herriko ikus-entzunezko sektorearen traktore bihurtzea.

Gehiagorako ere ematen du gaiak baina gaurkoz honetan utzi beharko dugu. ■





Bingen Zupiria

Deiako zuzendaria eta
ETBko zuzendari ohia

Eztabaida dezagun EITBren ereduaz

Lau urte bete ziren joan den abenduaren 31an LEITBren aurka lehergailua ipini zuela ETak. Oker ez banago EITBren ereduari buruzko eztabaidak izan zuten azken *ekarpena* izan zen.

Gero etorri ziren PP-PSOE gobernua, EITBren zuzendaritza berria, Ezker Abertzalearen aurkako zentsura luze eta erabatekoa, eta taldea osatzen duten hedabideen desnaturalizazioa eta antzaldaketa. Beste ezer baino lehen esan nahi dut guztiz harrিতa eduki nauela lau urte hauetan sumatu dudak isiltasunak. Izan ere, mutu ikusi baititut bai atentatuaren aurrean, bai zentsuraren aurrean, bai zuzendari berriek hartu zituzten erabakien aurrean edo irrati-telebistek bizi izan duten transfigurazioaren aurrean beste batzuetan hain kritiko izan ziren ahotsak. Bai. Biziki harritu nau orain EITBren ereduari buruzko gogoeta bultzatu duten euskalgintza ofizialeko eragile guztiak lau urtez isilik eta ezkutatuta sumatu izanak.

Ez nau horrenbeste harritu, ordea, atentatu, zentsura eta eredu aldaketaren aurrean ezikusi egin zutenak orain eztabaidaren lekukoa hartzen ikusteak eta protagonista bakar bihurtu direla konturatzek. Eta hori gutxi balitz, eztabaidarako erronka ezarri digute eta proposamen bat luzatu digute gainera: berreskura dezagun EITBren sorrerako izpiritua eta zehaztu dezagun Euskal Herriak gaur behar duen Irrati Telebista publikoaren eredu berria. Lastima! Zilegi da bakoitzak defenditzen duena mahai gainean jartzea eta guztia aldarazi nahi izatea, baina ez da onargarri 30

urtez izan diren eztabaida guztiak eta hartutako erabakiak, besterik gabe, hankaz gora bota nahi izatea. Jende askoren profesioa, ilusioa, konpromisoa eta bizimodua dago egindakoaren oinarrian eta horri esker gaur gizartean sustraituta dagoen taldea da EITB.

NOLA BERMATU ETORKIZUNA? BEHAR OTE DUGU EITB?

Lehenengo eta behin, beharrezkoa ikusten dut jokalekua finkatzea. Nola eta non mamitu behar da EITBren ereduari buruzko eztabaida? Nire ustez tokia Eusko Legebiltzarra da, eta protagonista nagusiak han ordezkaritza duten talde politikoak. Iritzi guztiak dira aberasgarri eta egokia litzateke zer esana dutenen ekarpenekin gogoeta aberastea, baina azken hitza dagokionari dagokio eta ez beste inori. Ez da beraz, EITBko zuzendaritza berriaren eginkizuna eredu aldaketza eta aldaketa hori batzuekin edo besteekin negoziatzea. Legebiltzarrari dagokio markoa adostu eta zehaztea, agian lege berri baten bitartez, eta EITBren zuzendaritza; eta Eusko Jaurlaritzaren kontua izango da, jarraian, marko hori bideratzeko eginkizunak zehaztea eta horretarako behar den finantzazioa bermatzea.

NOLAKOA BEHAR DUEN EITBK?

Nik neure iritzia daukat eta ez du beste edozeinena baino gehiago balio. Gizarte honi lotutako komunikazio taldea behar du. Ez luke inola ere alde batera utzi beharko, beraz, bere helburu nagusia komunikazioa dela, hedabide izatea, alegia; eta bere eginkizun nagusiak: informazioa eskaintzea, entretenitzea, gizartean txertatuta egotea eta ahalik eta tokirik gehienetara iristea –Euskal Herri osora, jakina, eta ahal den neurrian mundura–. Zilegi izan liteke, horretarako adostasuna lortuz gero, beste eginkizun batzuk ere eman nahi izatea, baina huts egingo dugu hedabide bezala duen izaera eta funtzioa bigarren mailan uztera behartzen badugu, kasu horretan ez baitu ezertarako balio izango.

EITBk euskararen komunikazio taldea izan behar du baina, aldi berean, elebiduna, gizarte elebidunean txertatua bizi baita. Hizkuntza bat baino gehiago daukagu, baina denok ez gara elebidunak.

Hortaz, EITBk zubi-lana egin dezake. Baina okerreko bidea hartuko luke euskararik ez dakien gehiengoari bizkarra emango balio. Hori eginez gero ezingo luke euskaldun gehienen eskubide eta informazio eskubidea bermatu eta ikusezin egingo luke euskararen mundua gure erkide askorentzat.

Ikuspegi nazionala edukiko duen EITB nahi nuke, lehiakorra, ikusle, entzule eta erabiltzaileak bereganatzeko beste hedabideekin merkatuan lehiatuko dena eta dauzkan baliabideak enpresa eraginkor baten modura erabiliko dituen. Profesional euskaldunek, elkar lanean, euskal hiritarrentzat komunikazio-produktuak sortzeko balio izango duen hedabide-sare bat. Euskadin bizi garen gizon-emakumeok, abertzale zein ez abertzaleek, euskaradun nahiz ez direnek, harrotasunez defendatuko dugun komunikazio talde publiko bat, beharrezko, interesgarri, erabilgarri, gustagarri eta geurea sentitzen dugulako. ■



Gure gizartearen motorra

Bere historian zehar, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak eztabaida intelektual bizi bultzatu du, gure gizarteari sorkuntza, ezagutza eta pertsona eta gizarte baliok emanaz.

50.000 kidek baino gehiagok osatua, Euskadin egiten den ikerketaren %70 egiten du, eta 300.000 titulatu baino gehiago sortu ditu jakintzaren hainbat eta hainbat arlotan.

UPV/EHU Euskal Herriko bizi-energiaren zati garrantzitsu bat egunero bultzatzen duen motorra da.



HEMEROTEKA

LEON-KASTILLO NEUTROEZ

Besteak beste, honako hau izango da EITBko zuzendaritza berriaren printzipio gidarietako bat: ETB1 suspertzea, eta, aldi berean, ETB2 hauspoztzen jarraitzea. ETB1 ZIUtik ateratzeko euskarazko eduki gehiago sortu beharra ei dago, harik eta ETB2rako ekoiztako ordu-kopuruarekin parekatu arte. Desafio horri, gainera, aurrekontu-murrizketa garaian helduko bide zaio. (...) ETB1 eta ETB2, biak bultzatuko direla aldarrikatzea (bataren existentziak besteari desorekarik eragingo ez balio modura, ahulenaren aurrekontua argalduz, giza-baliabideak gutxituz, ikus-entzuleak eta publizitatea ebatsiz...), diskurtso politikoki zuzena da, baina, ezinezko metafisikoa planteatzeaz gain (ez baita posible txanpona airera botatzea eta ez

leon ez kastillo aldera jaustea), eztabaida faltsutzten du, logika oinarrizkoenak argi dioskunari entzungor eginez: hau da, telebista kate bik esparru berean baldin badihardute, bietan ahulena indartuko bada, bietan indartsuena ahuldu behar dela; batak lekua irabaz dezan besteak espazioa desokupatu beharra daukala, alegia, bide batez bere diruen, giza-baliabideen eta ikus-entzuleen zati garrantzitsu bat *parent pauvre*-aren esparrura bidean jarrita. Hala egin ezean, 1986az geroztik bezala jarraituko dugu: txanpona airera beti, leonek eta kastillok, biek aukera berberak dituztelakoan, eta asturuak (ezin asmatuzkoak baitira Jaiuaren bideak) gehien-gehienetan kastilloren alde zergatik egiten duen igarri ezinda.

Aitor Zuberogitia (*Atabala* bloga, 2012-12-17)

EUSKAL TELEBISTA EUSKARAREN MINBIZIA

ETB1en aurrekontuak loditu, programazioa hobetu, ikuslegoa ugaritu eta orokorrean euskararen mundua aberastea, etorkizun hurbilean burutu beharreko helburuak dira zalantzarik gabe. Baina nahikoak al dira? Nago ezetz. (...) Telebistaren indarririk handiena bere indar arau-emailea da. Eta ez naiz iritzi politikoak moldatzeko duen indarraz ari, jokabide sozialak oharkabe aldatzeko, indarrean jartzeko edo modaz kanpo uzteko duen eraginaz baizik. Ager dezakeen beste edozein eragin oso gaintetik kokatzen da indar arau-emaile hori. Eta alde honetatik, euskarari, ETB1en egiten denak hainbat, edo seguru asko oraindik gehiago, eragiten dio ETB2n egiten denak. (...) Ez al da harrigarria telebista normaltasunaren sortzailea izaki eta euskararen erronka normalizazioa izaki, telebistaren eragin hori aintzat hartzen ez duen hizkuntza politika garatzea? Zertan gabiltza garrantzi txikiagoko hainbat aspekturen eztabaidan, indar nagusiaren gorabeherak zeharo bazter utzita? Batzuk ustekabez harrapatu ditu elebi-

dun gero eta gehiagok erdararen alde egiten duten aukerak euren eguneroko bizitzan. Etorkizun euskaldunaren euskarri izan behar ziren gazteak tarte. Eskolaldi osoa euskaraz egin eta gero nolatan ematen diote bizkarra gure hizkuntza maiteari? Telebistan ikusi dutenari begiratu gero ez dut uste erantzuna zaila denik. (...) Euskal telebistak erakutsi die “euskal” deitu daitekeela erdaraz eginez. Euskal (erdal) telebistak erakutsi die euskaldun peto-peto izan zaitezkeela nagusiki erdaraz jardunez telebistan. Norbaitek uste du herriak euskaldun petotzat jotzen duen jende erreferentziala nagusiki euskal (erdal) telebistan agertzeak ez duela mezu subliminalik? Ez duela normaltasuna arautzeko lanik egiten? (...) Elebidunak euskararen aldeko aukera egiten erakusten duen telebista behar dugu. Elebidun erreferentzialak. Telebistan behin eta berriz ageri direnak. (...) Amaitu egin behar dira behin-goiz simetriazko axolagabekeriak. (...) Telebistan euskaltzale agertzea da guztien artean ezinbestekoena. Telebistak fabrikatzen duelako egunero gure normaltasuna. Gaurkoa eta biharkoa.

Juan Uranga (*Sustatu.com*, 2012-11-16)

*Astero
irakurle gehiagok
aukeratzen dute
independentzia*

Jada 58.000* gara.

